BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1103

5/2013 DEKRETUA, otsailaren 20koa, Lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusia kargutik kentzea xedatzen duena.

Lan Harremanen Kontseiluaren otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 13.1 artikuluak dioenez, Jaurlaritzako lehendakariak izendatu eta kenduko du kargutik Kontseiluko idazkari nagusia, Kontseiluko kideei entzun ondoren. Artikulu horrek, halaber, bere kargu-aldiak bost urte iraungo duela ezartzen du eta, gehienez, beste agintaldi baterako aukeratu ahal izango dela.

Urtarrilaren 21eko 4/2008 Dekretuaren bidez Lan Harremanen Kontseiluko idazkari nagusia izendatu zen. Agintaldia iragan denez, eta Kontseiluko kideei entzun ondoren, idazkariari kargu hori uztea dagokio.

Horren ondorioz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ricardo Borja de la Sota Galdiz jauna Lan Harremanetarako Kontseiluko idazkari nagusiaren kargutik kentzea, agintaldia amaitu delako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko otsailaren 20an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.